

# Nabarniz Gotorlekuak

## Arrolamendi Nabarniz,

Arratzu eta Aulestia udalerrien artean dagoan mendi bat da, (560 m.) Mendi tontor onetatatik egundoko ikuspegiak agertzen dira, batez be, Urdaibai Biosfera osoa, Mundakako itsasadarra eta Bermeo aldeko itxasoa. Eta inguruetako mendiak, Illuntzar, Ereñotzar, Sollube, Santa Eufemia eta Oiz

## Burdin Aroan.

Erbesteko gizataldeak, zeltak, erromatarrak, lurralde onetara eldukera eragin berezi bat sortu zuen gure errian. Europa aldetik etorritako onelako talde bat eskualde onetan sartu zuen, (K.a VI mendean). Arrolamendian sustraitu ziran emengo lur oparoetan eta batez ere, andik ikusten ziran lurralde eta itxasalde zabalagaitik. Egiaz mendi zelaitu au egokia zuen kastro bat jartzeko euren begiratoki eta defentsarako

## Gotorlekuak eta edestia.

Oso jakingarria da gotorleku onen edestia. Zelta erriaren aztarna batzuk Kastroak dira, militar antzeko eraikiñak tontor goietan kokatuak. Kastro onen barruan eta inguruan erromatar Jaungoiko Juno eta Venus baten estatuatxoak aurkitu ziren, eta baita ere, arri batzuk inskripzio batzuekin, esku errotak, zeramika, burdin eta brontzezko zatiak.







### Ikerketak eta azterketak.

Kastroaren lenengo ikerketa eta indusketa lana 1827an egin zan. Geroagoko azterketak (1844) B. Taracena eta A. Fernandez de Avilesek zuzenduak dira. Aztarnategi onetan ikusten da beste peninsularen iparreko gotorlekuekin antzekoak dirala. 1982 urtean Luis García Valdés, zuzendaria zalarik, indusketa bat eginik, K.a. II mendeko zeramikazko zatiak aurkitu ziran. Aurkitutako beste gai arkeologjiko batzuk erromatar aldikoak ziran, adibidez. Arrolamendian eta beste leku batzuetan ere erromatarren biziera eta jardueraren lorratzak ikusten doguz.





## Gaur egun.

Joan diran urteetan Bizkaiko Foru Aldundiaren zaingo eta babesarekin nazioarteko gazte ikaslariak lan goragarriak egin dabez, batez ere, udako oporraldietan. Zer eta zelakoa izan da lan ori? Zoriturrez kastroa millaka urteetan, sasi, sastraka eta luperi artean ondatuta eta ondamentian egon da. Gazte ikaslarien lanagaitik gaur ikusten dogu argi ta garbi kastro zar orren leengo izakera, arrizko ormak, orma bitartetan barne aldeak, iruzur bideak, okerruneak eta inguruan begiratokiak

Kastroak 6 Ha. gitxi gora bera dauz, baña zati aundi bat aztertu barik dago. Onelako eraikuntza aundia gizarte talde batek egiña dala, ez dago sinistu bearrik



## Illuntzar gotorlekua.

Illuntzar mendi apatza eta zoragarria da, 720 m. Bertatik ikusten diran ikuspegiak, bene-benetan, ezin esan alakoak dira. Eta mendiaren gallurrean eraiki zan kastroa. Nabarnizko alkateak 1863 urtean aitazen dau Bizkaiko Aldundiari bialdutako agiri batean, "erromatarren etzauntza aztarnak". Defendatzeko ormak gaillura inguratzen eben ekialdea izan ezik. Ikerlariiek uste dabe Arrolamendiko gotorlekua baño zarragoa dala. Gaur egun lubaki bat besterik ez dogu ikusten.



Zenon Uriguen C.P.

